

DON JOSE MARIA

I

Doble naigabe izan zaiguna
Arrasate'n eroria,
bi gizon aundik bizitza oni
emanaz bukaeria.
Lena tristea izan zitzaigun,
oraingoz alaia,
len parrokoa joan zitzaigun,
orain don José María.

II

Auxe da auxe alabearra;
entzun, sortu ginduzuna,
Jakiñik gaude nai dezunean
eraman al gaituzuna.
Sinisten degu orretarako
baimen osoa dezuna,
saritu gabe etzazu utzi
ainbat serbitu dizuna.

III

Eraman digu gure gizona
Jainkoak mundu ontatik,
ez dituana gutxi izanak
esnaraziak lotatik;
ogibideak sortu zalea,
eliz-gizona bestetik,
zeruan toki izan dezala
mondragoitarren partetik.

IV

Agertu danez apartietan
aintzat artua zutela,
bidezkoa da itzegiteko
toki ematen ditela.
Erakutsita joan da ondo
buruz etzala motela,
ainbeste kristaun ogigiderik
etzun sortuko bestela.

V

Gizon aundi bat joan zaigula
izan dezagun goguan,
beti lanean aritu zana,
egin naiean zeguan.
Esan dutena, ondo esana,
ezin neurtu baliuan,
lenago asko egiñak geio
egin zezan nai genduan.

VI

Len etzegoan iñor nerutzerik,
arituzean batera,
bizi diranak ezagutzeko
izango dute aukera;
arek ezpaitu geiago egingo,
joan da eternidadera,
emen gelditu geranok orain
neurtuak izango gera.

VII

Gure artetik joanberria
zeran don José María,
egiten dizut parrokoari
egin nion eskaria;
mundu ontatik etzera joana
lanikan egin gabia,
bestetik ere lagun zaiguzu,
izango degu premia!

JOSE MANUEL ARRIOLA

Mondragoi'ko Kalezaia

1976 Abenduen 12 an LA VOZ DE ESPAÑA
Egunkarian agertuak.

Izkutatu zaigu
eguzki garbia
hau larritasuna
Ta ilunpe tristia
Zeruko Jauna entzun
gure ezkarria
munduan izan zena
bide erakuslea
Oo izan dezagula
beti zaindaria

Herria biotz biotzez
zenuen maite
ta lana ere gogor
egin bere alde.
Ikusten zaitugu orain
gugandik aparte.
Utzi dezun utsunea
nolatan bete ?
Agur Don Jose Mari
egun Haundirarte

Joxe Mari Zabalegui
29.11.76